



Europako
Batzardea

Eskubide sozialen zutabe europarra

Europa justuago
eta sozialagoaren alde
#SocialRights



Europa soziala

LEHENKARIETZA
PREZIDENTZIA

Lan honen bibliografia-erregistroa Eusko Jaurlaritzaren *Bibliotekak* sarearen katalogoan aurki daiteke: <http://www.bibliotekak.euskadi.eus/WebOpac>

Luxenburgoko Europar Batasuneko Argitalpen Ofizialen Bulegoa, 2018

© Europar Batasuna, 2018

Baimena dugu berrerabiltzeko, iturri bibliografikoa aipatzekotan

Europako Batzordearen agiriak berrerabiltzearen gaineko politika Erabaki honek ezarri zuen: 2011/833/EB (DO L 330, 2011ko abenduaren 14koa, 39. orria).

Europar Batasuneko egile-eskubideen men ez dauden argazkiak edo bestelako materialak erabili edo erreproduzitu badira, titularren baimena eskuratu beharko da.

Irudiak © Shutterstock, besterik esaten ez bada.

Argitaraldia: 1.a argitaletxe honetan: 2019ko iraila

Ale-kopurua: 170 ale

© Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa. Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusia. Lehendakaritza

Internet: www.euskadi.eus

Itzulpena: IZO (Itzultzaile Zerbitzu Ofiziala)

Irudiak: © Shutterstock, besterik esaten ez bada

Argitaratzailea: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia
Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco
Donostia-San Sebastián, 1 · 01010 - Vitoria-Gasteiz

Inprimaketa: PRINTHAUS, S. L.

Lege-gordailua: VI 718-2019

Eskubide sozialen zutabe europarra

Europa justuago
eta sozialagoaren alde
#SocialRights

Zer da eskubide sozialen zutabea?



Eskubide sozialen zutabeak Europar Batasuna (EB) justuago eta sozialago izateko 20 printzipio ezartzen ditu.

Herritarrentzat ez ezik, hazkunde ekonomiko jasangarrirako ere ona da zutabea, estatu kideak bateratu eta eguneroko bizimodua, enplegua eta ongizatea hobetzeko begira jartzen dituelako denak ere.

Halaber, eskubide sozialak errotzeko asmo publiko eta politikoa indarberrituko lituzke, eta oraintxe badugu horretarako premiarik, lanaren etorkizunak, desberdintasunek eta aldaketa demografikoak kezka eragina digute-eta. Zutabeak eskubide berriak ekarriko dizkie langileei, lan-harreman berrien eraginez enplegu-era berriak, sarri prekarioak, jasan behar dituzten langileei.

Europar Batasunak eta estatu-kideek elkarrekin aplikatzen dute zutabea, solaskide sozial, eskualde, hiri eta gizarte zibilarekin batera.

Eskubideak eguneroko bizimoduan



Gailur sozialean eskubide sozialen zutabe europarra aldarrikatuta, Europako erdi-erdira eraman ditugu lehentasun sozialak, alegia, dagokien lekura.

Marianne Thyssen

Enplegu, Gizarte-gai, Gaitasun eta Lan Mugikortasuneko Europako komisarioa



ec.europa.eu/social/social-pillar

Giulia eta Francesco



«Higiezinaren agentzia bat daukat nik, eta azkeneko urteotan lana egiteko erari buruz pentsatzen jardun dugu. Badugu aplikazio bat, bisita birtualak antolatzen ditugu... Horrez gain, hodeia eta une-unekeko mezularitza ere erabiltzen ditugu. Hasi ginenaren aldean, guztiz desberdin egiten dugu lan orain.»

Giulia

Ekin-zalea, 45 urte, Italia

«Lehen Giuliaarentzat egiten nuen lan, administrari laguntzailea nintzen, baina hori aldatu nahi nuen eta erabat parte hartu agentziaren bilakaeran. Bi urtez, lanaldi partzialean jardun nintzen, komunikazioko teknologia berrien inguruko kurtso bat egiteko. Gaur egun, agentziako web-orriaz eta bitarteko sozialez arduratzen naiz.»

Francesco

Edukien kudeatzailea, 32 urte, Italia

Zer da «Europa soziala»?

- enplegatuei lan-baldintzetan **tratu justua eta ekitatiboa** izateko eskubidea ematea;
- langileei babes soziala eta **prestakuntza** jasotzeko aukera ematea, lan-harremana edozelakoa dela ere;
- angileei laguntza ematea aldi baterako enplegutik **behin betiko kontratu**etarako **trantsizioa** egiteko;
- **lan egiteko era berritzaileei indarra ematea**, kalitate oneko lan-baldintzak garantizatzeko;
- enpresa-gogoia eta norberaren enplegua eragitea (langileek ere **mugikortasun profesionala** bultzatzen ahalegindu behar lukete);
- **lan-baldintza prekarioak** ekartzeko arriskua dakarten lan-harremanak saihestea (besteak beste, kontratu atipikoak gehiegiz erabiltzea galarazi).

Koen



«Ikasketak bukatu berri ditut, eta lan bila nabil. Down sindromea ez dut oztopo izango mekaniko-ikastun izateko. Bidezaket, nahikoa dut laguntza apur bat.»

Koen

16 urte, Herbehereak



Zer da «Europa soziala»?

- gazteek eskubidea izatea **heziketa jasotzeko, ikastun izateko kurtsoak egiteko edo kalitate oneko enplegu-eskaintza** jasotzeko lanik gabe geratu eta hurrengo lau hilabeteren barruan (Gazte Bermearen Funtsaren arabera);
- ezgaitasunen bat dutenek eskubidea izan dezatela **errenta osatzeko laguntzaren bat** jasotzeko, bizimodu duina izango dutela ziurtatuta eduki dezaten;
- langileek **babes sozial egokia** jasotzeko eskubidea izan dezatela.

Mahika, Rasmus eta familia



«Erditu nintzenez, bikiak gure lehentasun bihurtu ziren, baina hala eta guztiz ere, ez nik ez Rasmusen ez genuen asmorik gure lanak alde batera uzteko. Danimarkan lana eta familia uztartzeko aukera dugunez, ez bata ez besteak ez genion lanari uko egin behar izan. Rasmus aitatasun-baimena hartuta dago. Bera lanaldi partzialean ari da, eta nik astean bitan etxean egiten dut lan.»

Mahika

39 urte, Danimarka



Zer da «Europa soziala»?

- gurasoek nahiz umeen ardura dutenek eskubidea izan dezatela baimen egokiak izateko, **lan-baldintza malguak** izateko eta laguntza zerbitzuak eskura izateko;
- langileek **soldata justua** eta bizimodu duina izateko eskubidea izan dezatela;
- emakumeek eta gizonek eskubidea izan dezatela lan berdina eginez gero, **soldata berdina** jasotzeko.

Marek



«Elikagaiak fabrikatzeko planta batean lan egin nuen zazpi urtez. Berregituratu egin zen enpresa duela sei hilabete, eta kalera bota ninduten. Gogorra izan da, baina lanbide-aholkularia oso lagungarri izan dut. Berak erakutsi zidan langabeziako prestazioa nola eskatu, eta hurrena zer egin aztertzen ari naiz oraintxe bertan. Janari biologikoen enpresa bat sortu nahi dudanez, indarra hartzen ari diren enpresa-era berrien kurtso batean nabil.»

Marek

40 urte, Txekia



Zer da «Europa soziala»?

- lanetik bota aurretik, **langileek eskubidea izan dezatela kaleratzea zer arrazoi dela-eta datorren jakiteko**, eta kaleratzearen berri aurrez izateko, nahiko tarte emanda;
- lan bila dabiltzanek **laguntza pertsonalizatua** jasotzeko eskubidea izan dezatela lana bilatzeko, ikasteko eta berriztatzeko;
- lan bila dabiltzanek **langabeziako prestazio** egokiak jasotzeko eskubidea izan dezatela, itxurazko denboraz.

Carmen



«Oso gustukoa dut nire lana betidanik, eta umeak hazten ari nintzela aukera izan nuen bizimodu aktiboa izateko, herriko ekintzetan-eta parte hartzen nuela. Duela hamar urte, bizkarreko mina zela-eta arazoak sortu zitzaizkidan ordea. Zorionez, aukera izan nuen enpresa berdinean beste lanpostu batean hasteko, eta halako ahalegin fisikoa behar ez duen lana egiteko. Eta ezer ordaindu gabe, fisioterapia-saioak jasotzeko aukera ere izan nuen. Erretiratuta nago orain, baina gure herriko kultura-etxeak edadetuentzako antolatzen dituen kirol-ekintzetan ere ibiltzen naiz.»

Carmen
68 urte, Espainia



Zer da «Europa soziala»?

- langileek eskubidea izatea **beren lanbideko premietara egokitutako lan-inguruan lan egiteko**;
- modu oneko **osasun-asistentzia jasotzeko eskubidea izan dezatela denek, prebentzioa eta osabidea ematekoa, eta kalitate onekoa**;
- **denbora luzean zaintza jasotzeko eskubidea** izan dezatela, modu onean eta kalitate onez;
- **erretiro-pentsio itxurazkoa** jasotzeko eskubidea izan dezatela, nola beren kontura ari direnek hala besteren kontura ari direnek.





20 eskubide eta printzipio

Europa justuago eta sozialagoaren alde

Eskubide sozialen zutabe europarra, 20 printzipiotan

Eskubide sozialen zutabe europarrak eskubide sozial berriak eta eraginkorrakoak eman nahi dizkie herritarrei, 20 printzipio oinarritzotan bermatuta. Honako hiru kategoriatan egituratuta daude printzipiook:

Berdintasuna, bai aukeretan bai lan-merkatura sartzeko bideetan

- 01.** Hezkuntza, prestakuntza eta etengabeko ikasketak
- 02.** Sexuen arteko berdintasuna
- 03.** Aukera-berdintasuna
- 04.** Enplegua bultzatzeko laguntza aktiboa

Lan-baldintza justuak

05. Enplegu segurua eta egokitzeko modukoa
06. Soldatak
07. Lan-baldintzei buruzko informazioa, eta kaleratuz gero jaso daitekeen babesari buruzkoa
08. Langileen dialogo soziala eta parte-hartzea
09. Bizimodu sozialaren eta pribatuaren arteko oreka
10. Lan-inguru sana, segurua eta ongi egokitua, eta datuak babestea

Gizarte-babesa eta gizarteratzea

11. Umeentzako asistentzia eta laguntza
12. Babes soziala
13. Langabeziagatiko prestazioak
14. Gutxieneko errenta
15. Edadetuentzako pentsioak eta prestazioak
16. Osasungintza
17. Ezgaitasunen bat dutenak gizarteratzea
18. Epe luzeko zaintza
19. Kale gorrian bizi direnentzako etxebizitzak eta laguntza
20. Oinarrizko zerbitzuak eskuratzea

Europar Batasunarekin kontaktuan jartzea

Aurrez aurre

Ehunka Europe Direct informazio-zentro daude Europar Batasunean. Hemen duzu zentroyen zerrenda: https://europa.eu/european-union/contact_es

Telefonoz edo e-postaz ere komunikatu zaitezke

Europe Direct zerbitzuan Europar Batasunari buruz dauzkazun zalantza guztiak argituko dizkizute.

Zerbitzua erabiltzeko:

- doaneko telefono zenbakia: 00 800 6 7 8 9 10 11 (gerta liteke operadore batzuek deia kobratzea);
- beste telefono zenbaki hau: +32 22999696; edo
- posta elektronikoa honetan: https://europa.eu/european-union/contact_es

Europar Batasunari buruzko informazioa

Linean

Hemen duzu Europar Batasunari buruzko informazioa, Batasuneko hizkuntza ofizial guztietan jarria: https://europa.eu/european-union/index_es

Europar Batasuneko argitalpenak

Hemen deskargatu edo eska ditzakezu Europar Batasunari buruzko doaneko nahiz ordaindutako argitalpena: <https://publications.europa.eu/es/publications>

Doaneko argitalpenen ale bat baino gehiago nahi baduzu, jo Europe Direct zentroyra edo zure herriko informazio-zentroyra (https://europa.eu/european-union/contact_es).

Batasuneko zuzenbidea eta horri lotutako dokumentuak

Europar Batasunari buruzko informazio juridikoa eskuratzeko (1952etik taxututako zuzenbidea ere bai, hizkuntza ofizial guztietan), hemen web orri hau: <http://eur-lex.europa.eu>

Europar Batasunari buruzko datu irekiak

Europar Batasunari buruzko datu irekien ataria: <http://data.europa.eu/euodp/es>
Batasunari buruzko datu-multzo batzuk ikusteko aukera ematen du. Datuak doan deskarga daitezke eta nahi bezala erabili, helburu komertzialetarako edo beste edozeinetarako.

Hemen gure argitalpenak deskarga ditzakezue, edo doan harpidetu zaitezkete: **<http://ec.europa.eu/social/publications>**

Aldiro-aldiro Enplegu, Gizarte-gai eta Gizarteratze Zuzendaritza Nagusiaren berriak jaso nahi badituzue, Social Europe doaneko buletin elektrikoari harpidetu besterik ez duzue. Hemen:

<http://ec.europa.eu/social/e-newsletter>



Social Europe



EU_Social